

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

374/2016 Foru Agindua, irailaren 16koa, onartzen duena Javier Barbara Acha Laudioko Udaleko behin-behineko diruzain izendatzea 2016ko irailaren 19tik urriaren 6ra (biak barne)

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra daukala, adierazitako denbora horretan Oscar Fernandez de la Roza udaleko diruzaina ordezkatzeko.

Horregatik, Udaleko Errenta eta Ordainarazpenen administrari Francisco Javier Barbara Acha proposatzen da behin-behineko izendatzea epe horretarako.

Bat etorritz 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartu da abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, toki administrazioaren arrazionalizatzeko eta iraunkortasunarenak, 25. artikuluan xedatutakoa; hain zuzen ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, aldatzen du horrek, 92 bis artikulua berria sartuta, non toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua finkatzen baita.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak betez (52/1992 Foru Araua), haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Francisco Javier Barbara Acha Laudioko Udaleko behin-behineko diruzain izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan titularra ez dagoen bitartean, alegia, 2016ko irailaren 19tik urriaren 6ra arte (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazi den aldirako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 16a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua
MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ